



# HEZKUNDER

## Nondik atera da idea?

Taldean, gaur egungo gazteen arazoei buruz hausnartzen genbilen eta horren harira bi bide ireki zitzaizkigun. Alde batetik, gure ingurukoek emaitza akademiko baxuak zituztela aipatu genuen. Bestetik, dirutxoren bat irabazteko hainbat gaztek eskolaz kanpoko klaseak ematen zituztela esan genuen. Horren ondoren, benetako arazoa duten horiengan zentratu ginen eta lanik ez duten irakasleengan pentsatu genuen. Egungo sisteman ikasle askok arazoak dituztela gogoratu ere egin genuen eta hortxe merkatu perfektu bat ikusi genuen. Izan ere, hainbat irakaslek haien adina edo dena delakoagatik eta hainbat ikaslek (berezi emaitzen aldetik) arazoak dituzte egungo hezkuntza sistemarekin. Beraz, bi talde hauek harremantzeko eta biei aukera berri bat emateko asmoz negozio honi ekin genion.

## Zertan gara bereziak?

Gure inguruko arazo bat denez, esan dezakegu bezeroen beharrak, eta horretaz gain, klaseak emateko gazteen aurre disposizioa, lehen pertsonan ezagutzen dugun zeozer da. Orduan, merkatuaren ezagutza egokia dugu eta badakigu, eskaintza eta eskari ugaridun merkatu bat dela. Gainera, honetara dedikatzen diren beste plataforma batzuk ez bezala, **ikasgaiak euskaraz egiteko aukera ematen du, eta baita euskara ikasgaia lantzeko**. Horretaz gain, desberdintzen gaituen zeozer, bada, **ez dugula irabaziak lortzeko helburu soila, proiektu sozial bat egiten ari garelako, non familiekin harreman ezin hobea mantendu nahi dugun**. Hau guztia gutxi ez balitz, gure enpresak sistemak alde batera uzten dituen aukera berri bat ematen die. Esan genezake, era metaforikoan gure enpresa “La Casa de Papeleko” Irakaslea dela baina lapurrei aukera berri bat eman beharrean, sistemak aukera eman ez dien irakasle edota sistema berak ahal dutena baino zenbaki txikiago baten harrapatu dituen ikasleei aukera ematen diela.